



IRAGARKIA

Alkateak 2026ko irailaren 11n emandako dekretu baten bitartez “Bergara Bizi” bonu-laguntzen 2026 urteko deialdia onartu da eta honen bidez argitaratzen da:

IKASLEEI ZUZENDUTAKO “BERGARA BIZI” BONU-LAGUNTZA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZARI JARRAITUZ 2026AN BONU-LAGUNTZA BANATZEKO DEIALDIA.

Xedea:

Bonu-laguntza honen deialdiaren xedea da ikasleen beharrianetarako erosketak egiteko udalaren laguntza ekonomikoak arautzea.

Diruz lagundu daitezke eskola-umeen beharrianetarako erosketak: arropak, oinetakoak, kirol materiala, eskolako materiala (hiztegi, motxila, estutxe, margo...), material informatikoa, betaurrekoak eta lentillak, etab., baina soilik Bergarako komertzioetan egin bada erosketak.

Onuradunak:

Eskatzaileek honako baldintzak bete beharko dituzte, deialdiaren iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunean:

- DBE (diru sarrerak bermatzeko errenta), GLL (gizarte larrialdietako laguntza) edo bizitzeko gutxieneko diru sarreraren onuraduna izatea.
- Onuraduna izango den ikaslearen gurasoren bat Bergaran etengabe errolatuta egon izana gutxienez azken sei hilabeteetan. Udalak hau ofizioz egiaztatuko du.
- Bere kargu izatea 3 eta 18 urte bitarteko (biak barne) pertsonak, laguntza-deialdia egiten den urtean beteta.
- Derrigorrezko eskolaratze adina gainditu duten ikasleen kasuan (16 urtetik gorakoak), ikasle-egoera ziurtatzea. Horretarako, araututako ikasketak gauzatzen ari direla ziurtatzeko matrikula-ziurtagiria aurkeztu beharko da.
- Bergarako Udalarekin inolako zorrik ez izatea. Udalak hau ofizioz egiaztatuko du.
- 38/2003 Dirulaguntzen Lege Orokorraren 13. artikuluko debeku-kasuetan ez egotea.

Zuzkidura ekonomikoa eta bonu-laguntzaren zenbatekoa:

Dirulaguntza bonuen bitartez emango da. Bonu-laguntzaren zenbatekoa honako hau izango da:

- 12 urtetik beherako umeengatik, 100 euroko bonu-laguntza umeko.
- 13-18 urte bitarteko gaztetxoengatik, 150 euroko bonu-laguntza gazteko.

Bonuak gastatzeko epea 2026ko abenduaren 31ra bitartekoa izango da.

-Aurrekontu zuzkidura: 19.500 euro.



-Aurrekontu partida: 1.3330.480.326.00.01

-Barne kodea:1588

Eskaerak aurkezteko epeak eta modua:

Eskaera urriaren 1etik 20ra bitartean egingo da. Prozedura honakoa izango da:

1.- Herritarrek eskaera B@Z bulegoan egingo du, horretarako epea izanik urriaren 1etik 20ra bitartekoa; azken egun hori jaieguna balitz, epea hurrengo lanegunean bukatzen dela ulertuko da.

2.- Eskatzailea bera (DBE, GLL edo Bizitzeko Gutxieneko Diru-sarreraren onuradun titularra) etorri beharko da, eta etorri ezean haren idatzizko baimena ekarri beharko da. B@Z bulegora bertaratu beharko da, indarrean izan behar duen identifikazio-agiriarekin, eta horretaz gain, 16 urtetik gorako seme-alabaren bat ikasten ari bada, ikasle-egoera ziurtatzeko, araututako ikasketak gauzatzen ari dela egiaztatze matrikula-ziurtagiria aurkeztu beharko du. Eskabidearekin batera, halaber, jasotzen ari den laguntzaren ziurtagiria (dagokion erakundeak emandakoa) aurkeztu beharko du. Bergarako Udalaren GLL(u) jasotzen ari bada ez du ziurtagiririk aurkeztuko, udalak ofizioz konprobatuko duelako.

3.- Eskaera Hezkuntza Zerbitzura bideratuko da eta horrela adieraziko zaio eskatzaileari. Hezkuntza Zerbitzuan eskaera guztiak aztertuko dira eta dagozkion konprobaketak egingo dira. Espedientea aztertu ondoren, Udaletik eskatzaileekin harremanetan jarriko dira eta egindako eskaeraren baiezkotza edo ezezkoa jakinaraziko zaie beraiek aukeratutako moduan.

Jakinarazpena jasotakoan, bonu-laguntza onartu zaien herritarrek bonuak B@Z bulegoan jaso beharko dituzte.

4.- Bonu-laguntza honako hau izango da:

-12 urtetik beherako umeengatik, 100 euroko bonu-laguntza umeko.

-13-18 urte bitarteko gaztetxoengatik, 150 euroko bonu-laguntza gazteko.

5.- Bonuak gastatzeko epea urte bakoitzeko abenduaren 31ra bitartekoa izango da.

6.- Bonuak eskaera-dataren arabera banatuko dira; hau da, eskaera-kopuruak udalak aurreikusitako bonu-kopurua gaindituko balu, eskatzailea bono gabe geldituko litzateke.

Eskaerak aurkeztuko dira Bergarako udalaren aurrean B@Z Bergararren Arreta Zerbitzuaren bitartez, udal egoitza elektronikoan edo 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan aurreikusitako beste edozein eratan.

Bergara, 2026ko irailaren 14a

Alkateak